

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko ekainaren 25a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Betelu • Inguruko lehenengo jaiak hasiko dira gaur.

Mikel Sorauren • «Independentzia galeraren une gorena da Noaingo Guda».



Teresa Motos:

belarrean makila eta pilota mugitzen iaioa

Teresa Motos Izeta belar hockey jokalaria ohia donostian jaioa, hazia eta hezia bada ere, Baztan izan du bigarren etxea. Hangoa ditu ama eta senarra. Egun Barañainen bizi da, eta kirol eta hockey irakaslea da San Agustin ikastetxean. Joan den urtean belar hockeya utzi zuenetik hainbat omenaldi jaso ditu. Azkena, Baztango Gantanbera kofradiak joan den igandean eskainitakoa. Puntako jokalaria izan da, baina egun familiak du beretzat lehentasuna.



Betelu ●

Jai gosea asetzeko aukera

Inguruko lehenengo jaiak hasiko dira gaur eta lau egunez alaitasuna nagusituko da

Pedro Deunaren ohorez ospatzen dituzte beteluarrek, inguruko lehen jaiak direnak. Sorginaren etorrerarekin batera hasiko dira gaur, aurreko bi urteetan bezala, eta hainbat ekitaldi izanen dira astearte bitartean.



Marcillan egin ohi duten bezala, Betelun ere aitzur-jaurtiketa lehiaketa egingen dute.
● ARTXIBOKOA

LEHENDIK ERE GAUZA JAKINA da Betelu, sorginen ukulu dela. Horregatik, duela bi urte hasitako ohiturari jarraituz, aurten ere, sorginaren etorrerak emango die hasiera herriko jaiari. Globoz egingo du Betelu arteko bidea sorginak, eta beteluarren artean juerga dexente egingo omen du, astearte bitartean; egun horretan su emango baitiote, jaien bukaera iritsia dela esateko. Baina ordura arte, festa giroz beteriko lau egun dira tartean.

19:00etan jaurtiketa dute suzuria, eta ondoren, herrian zehar ibiliko dira bertakoak, txarangaren laguntzaz, txikiteoan. 22:00tan Zigari elkartean egingo den afariaren atariko baina ez da izango hori. Gauerdiko ordu txikietan, Izotz taldearen musika

lagun dutelarik, dantzaldia izanen dute, eta hau bukatutakoan, goizeko 5:00ak aldera, elastiko bustien lehiaketa izango da. Araxes ibaian bustiko dituzte kamiseta horiek, eta epaimahaia osatzeko lanak ez omen dira xamurrak izan, boluntario ugari omen zegoen eta. Lehiaketa horrekin bukatuko da gaurkoa, Ezkongabeen Eguna deitua.

Bihar, berriz, Gazteen Eguna izango da, eta puska biltzearekin emango zaio hasiera. Eguerdian, paella jatea izango da, erreka bazterrean. Arratsaldea kirolari

emana da batez ere, bi pilota jaialdi izango baitira: lehena, arratsaldeko 18:00etan, larruzko pilotakoa, eta bestea, ordu bat beranduago, eskuz aritzen diren afizionatuen artekoa. Bestalde, aspalditik Betelun desagertua zen ohitura bat berreskuratuko dute bihar, 22:00etan: zezen suzkoa. Horren ostean, Laiotz taldearekin dantzaldia izango da. Ohera joan baino lehen, Bixentikok prestatutako baratxuri zopa jateko aukera ere izango da.

Ezkonduen Eguna, etzi-

koa, alegia, meza nagusiarekin hasiko da eguerdian. Gero, Amezketako Arkupe dantzari taldearen erakustaldia izango da. Beste erakustaldi bi arratsaldean izanen dira. Batetik, eskulanak jarriko dituzte hainbat artisauk Beteluko pilotalekuan, eta bestetik, Saralegi anaiak ariko dira nor baino nor. Emakume arteko aizkora apustu bat ere izango omen da tartean. Etzi ere, musika Laiotz taldeak jarriko du, eta dantzaldia bukatutakoan, oraingoan, txokolate jatea izanen da.

Aitzur jaurtiketa hirugarrenez

Etzidamu, umeen eguna izaki, etxeke txikienak izango dira protagonista. Hamarretan, eta seietan, haur jolasak izango dituzte, eta ipuin kontalari batek liluratu egingo ditu, gero, seguruenik. Muxutruk taldearen arrimotan dantzatzeko aukera ere izango da. Talde bera ariko da asteartean, beteluarrek animatu nahian.

Herriko patroil San Pedroren eguna izango da aurtengo jaietako azkena. Horregatik, urteetan egin duten antzera, goizeko 7:00etan herrian ibiliko dira aurorako. Eguerdiko mezaren ostean, pilota txapelketen finalak jokatuko dira, eta txikiteoa doan izango da.


Arratsaldean, hasi berria den txapelketa baten ostean (mus txapelketa azkarra), jadanik hirugarren aldia duen beste batean ariko dira indatsuenak: aitzur jaurtiketan. Laguntza ezin aproposagoak izan daitezke, horretarako, banatuko den gazta zaharra eta ardoa.

Goizeko 5:00etan amaituko dira aurtengo jaiak. Ordu horretan abestuko dute Gai-xoa ni, eta gero, sorgina erreko dute. Lan erraza izango da, inondik ere, kontuan hartuta zenbat alkohol izango duen sabelean.

→ Urko Aristi

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Elebidun kuantikoak

Espazioaz, materiak, indar grabitatoriaz eta, bereziki, denboraz ari ziren bi hizlariak, lasai-lasai, gauko ordu txikietan, telebistako pantailaz bestalde.

«Begira, fisika kuantikoak frogatzen duenez, materiak baditu zenbait partikula azpiatomiko, kuantuak deritzatenak, ezaugarri jakin bat eta kontrakoa ere aldi berean dituztenak; esan nahi baita, partikulok badutela bi molde ezberdinez batera jokatzeko ahalmena, positibo eta negatibo; beti ere, beste partikularen nolakotasunaren arabera: gauza bat dira, eta haren kontrakoa ere bai».

Horratx!, ez gaude horratio, oso urruti kuantu horietatik, pentsatu nuen nire kautan.

«Aizu, eta horrek badu isladirik gure eguneroko bizimoduan? Badu zer ikusik gurekin?», bota

zion ile zuridunak elkarriketatuari.

Fisikariak, batere harrotu gabe, bazekien hitzak ongi neurtzen eta baita mezua garbi antolatutik ematen ere; eta haria galdu gabe, erantzun zion:

«Gure izaera, hein handi batean, ekintzen bitartez osatzen eta gauzatzen denez, ekintzok erantzun jakin bat eta kontrakoa ere eragin dezakete besteengan. Hau da, segun eta besteak nolakoak diren -zer karga moeta duten nirekiko- atsegina eta desatsegina izan naiteke ni, besteendako nire alde-tiko jarrera bera eta bakarra izan arren».

Hara, goi mailako fisikari baten ahotsean bide-raturik, taoisten yin-yang teoriaren arrastoak, semiten Kain eta Abelen istorioa, klasikoan Eros eta Tanatos-en katramila, hinduisten Atmán eta Brahman, kristauen Aingeru eta Deabruen borroka

eternoa, marxismoaren lege dialektikoa...


«Beste arlo batera joz -jarraitu zuen esaten fisikariak-, nik, esate batera, bi hizkuntza menperatzen ditut, zein baino zein ederkiago (ahozkeragatik, katalana zela nabaritu behar da), eta elebidun osoa izateak badakarkit -besteak zein hizkuntzatan hitz egiten duen, noski- batzuekin eta besterekin elkar komunikatzeko gaitasuna».

Puntu honetara iritsirik, hezur eta mami murgildurik nengoen fisika kuantikoaren ur sakonetan. Izan ere, partikula horietako bat bezala ikusten nuen neure burua, zurea orain dakusadan gisa, irakurle kuantiko hori; guztiok herri honetan barrena goazelarik, karga bateko zein besteko kuantu guziekin batera jo eta aritzeko nahian. Halako elkar-jotzean, loak hartu ninduen ustegaberik.

Torralba del Rio • Juan Lobo edo Moro Juan

Herriko biztanleek 1523. urteko ohitura gogoratuko dute bihar

Juan Lobo edo Moro Juan izeneko lapurra harrapatzen saiatuko dira berriro ere Torralba del Rioko herritarrek. Atzeman ostean, dantza eginen dute guztiek urmael baten inguruan.



Torralba del Rio herrian antzetzuko da Juan Loboren istorioa.
• MIKEL SAIZ

JUAN LOBO EDO MORO JUAN pertsonaiaren istorioa herri kondaira bat da, fantasiaz jantzitako kondaira bat. Baina, hala ere, inork ez du ukatzen bizi izan zela. Torralban ahoz aho zabaldu izan da kondaira, eta urtez urte gogoratzen dute kontakizuna herriko biztanleek. Diotenez, Juan Lobo lapur multzo baten burua zen. Bailaran barrena lapurretak egiten ibiltzen zen taldea, eta sarritan bidaiariei eraso ere egiten zieten. Hori guztiori Nafarroaren konkistako garaian gertatu zen; Gaztelako tropak Nafarroarantz etorri zireneko garaian, hain zuzen.

Haran zabal honetako jendea beldurturik zegoen, eta, egoera jasanezina egin zenean, herriko plazan bildu ziren guztiak. Jendeak lapurra

harrapatu behar zela erabaki zuten, eta, horretarako, baiezta-rien eskuaira eratu zen herrian.

Preso San Joanetan

Horiek lapur taldea harrapatze-ko hainbat saiakera egin zituzten eta, azkenik, 1523ko ekainaren 24an (San Joan

egunean) hartu zuten preso Juan Moro. Kondairak dioenez, Pierres de Mirafuentes zaldunak hil zuen Juan Moro lantza batekin zauritu eta gero. Torralba del Rioko borrokarietatik, aldiz, ez zen inor hil borrokan. Haiek herrira itzuli zirenean berri ona etxe guztietan zabaldu

zuten, eta, ondoren, dantza egin zuten urmael baten inguruan baiezta-riak.

Kondaiarak lau mende ditu eta aspalditik Torralba del Rio herriko biztanleek gogora ekartzen dute 1523an gertatutakoa. Herriko gizon batek Juan Mororen pertsonaia berpizten du. Zuhaitz adaxka eta hostoz janzten du bere gorputza eta burua, eta mendira abiatzen da eskutatzerara. Baiezta-riek suziriak eta makilak dituztela lapurraren atzetik abiatzen dira hura harrapatze-ko. Harrapaketak hamabortz minutu irauten du. Tartean, baiezta-riek korrika egiten dute eta sarritan lurre-ra erortzen dira. Azkenean, urmael baten barnean harrapatzen dute Juan Lobo. Denak blai eginda daude.

Harrapatu eta gero, lapurra lotu egiten dute hanketatik eta eskuetatik eta zaldi baten gainean herriko frontoira eramaten dute. Han epaitu egiten dute eta epaia bertotan kantatzen dute. Juan Moro urtean zehar herriari gertatu zaizkion gauza txar guztien errudun bakarra egiten dute. Duela lau mendeko ohitura eta ikuskizuna ikusi nahi duenak bihar du aukera, Torralba del Rioko herritarrek 17:30etatik aurrera antzetzuko baitute.

→ Kristina Berasain



herri aldizkariak
Xabier Larraburu

Telebista eta txirrindularitza

TTIPI-TTAPA aldizkariak izen bereko herri telebista izan du aztergai azken zenbakian, telebistak lehenengo urtea bete baitzuen joan den ekainaren 15ean. Hori dela eta, lehen urteko data garrantzitsuenen bilduma plazaratu du **Ttipi-ttapa**, telebistaren hastapenak gogora ekartzeko asmoz. «1998ko apirilaren 26an egin zuen lehen agerraldia Ttipi-ttapa Telebistak, Almandozen, Apirileko Ferian, eta urte bereko maiatzaren 24an, Arantzan UEMA eguna ospatzen zela probetxatuz, aurkezpen ofiziala egin zuten. Ekainaren 1ean telebista

honek bere lehen irudiak emittitu zituen, telebideoa martxan jarritz».

Iazko ekainaren 15ekoa izan zen lehen-dabiziko emisioa: «Nerbioak eta arazo teknikoak tartean, ordu erdi berandu hasi zen informatiboa. Uztailaren 5ean eta 6an lehen-dabiziko programa berezia emittitu zuten, Lesakako sanferminei buruz, eta irailean lehenengo *Jokoa solas* kirol programa eman zuten». Lehen urteurrena ospatzeko, urtebeteko irudien errepaso egin zuen **Ttipi-ttapa** telebistak hilaren 15ean.

Bestalde, kirolari eskaini orrialde-

tan, Patxi Vila txirrindulari beratarra da protagonista. Nafarroako Itzulian hirugarren izan da Vila: «Lehen nafarra izatea zegoen nire kalkuluetan, baina sailkapen orokorrean hirugarrena izatea ez, inondik ere». Izan ere, lehen aldiz parte hartu du Nafarroako Itzulian, eta, Granadan erori ondoren, duela hilabete eta erdi ebakuntza egina zioten: «Konpetizio falta handia nuen, eta nola nengoen ikustera atera nintzen. Egunetik egunera hobeki nengoen, eta, azkenean, podiuma...». Caja Rural taldean dabil 23 urteko txirrindulari beratarra.



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

Dena argi dago

Ez dakit zuek, baina nik behintzat Lider Teoriko bat daukat. Agian, agian diot ez baitakit, zuek esnatu, irratia jarri, eta entzuten ari zareten bitartean zeuen kabuz, zeuen kasa, zeuen itxukeriarekin, esango dizue: «Ez nago ados» edo «horixe baietz!». Ez noa ni hemen duzuen joera arriskutsu hori kritikatzera. Ikusten dut libre bizi zaretela, oso modu autonomoan eta beste. Azken batean tronpatzeko arriskuari aurre egiten diozue eta hori, akaso, ongi dago. Baina kasu! Ohartu behar duzue tronpatzeko arriskupean bizi zaretela! Ez ni bezala. Nik Lider Teoriko bat daukat eta! Nik irratia entzun eta esaten dut: «Ikusiko dugu zer pentsatzen duen hontaz Anitak». Anita nire Lider Teorikoa baita, eta Anitak «horixe baietz!» esango du agian, eta ni ados. Eta orduan zuetaz oroitu-ko naiz, eta nola goizean irratia aurrean «ez nago ados» esan duzuen, eta niretzat esango dut: «Tronpatu dira! Ja, ja, ja. Oso autonomo, oso iritizidunak, intelektualak!, baina, hil, baina: tron-pa-tu di-ra!». Badakit esango duzuela: «Tonto halakoa», baina niri bost. Pena pixka bat ere ematen didazue, ez baitakizue Anitak zer iritzi duen hontaz eta hartaz, eta horren ondorioz ilunpean bizi baitzarete, umezurtz, txupeterik gabe, zeuen ideien mesfidati. Ja, ja, ja. Hau pena ematen didazuena! Tabernetan zaudetela, eta pixka bat mozkorturik, horren ozenki botatzen dituzuen iritzi horietaz erabat fido gabe zabilzate eta biharamunean, esnaterakoan, bezperan esandako erdiaz damutzen zerate. Batzuk gauza erdiez ez, baizik eta gauza guztiez damutzen dira! Ja, ja, ja. Normala. Lider Teoriko bat falta zaizuelako. Ez dakizue zer gustua ematen duen. Ezin duzue imaginatu ere. «Eta nik, zer iritzi dut hontaz?», galdetzen diot Anitari, eta Anitak, argi errainua bihurturik, iluntasunaren erdian jotzen du, txupetea ahoan jartzen dit, naizen umezurtzari esku epela luzatzen dit. Telefonoz hotsegini diot ea nola bukatu behar duan artikulua galdetzeko asmoz. Tutututu batek erantzun dit. Beraz...ez dakit nola birbil- du hau. Ez dakit. ●

Teresa Motos Izeta

Hockey jokalaria ohia

«Familiari lehentasuna ematea erabaki dut»

Teresa Motos Izeta Donostian jaloa, hazia eta hezia da, baina Baztan izan du bigarren etxea, nahiz eta egun Barañainen bizi den. Joan den urtean belar hockeya utzi zuenetik hainbat omenaldi jaso ditu. Azkena, Baztango Gantanbera kofradiak joan den igandean eskainitakoa. Puntako jokalaria izan da, baina egun familiak lehentasuna duela dio.

AITORTU DUENEZ, KIROLAZ GAIN, ERRE GUSTUA hartzen duen gaztanberak txorazten du. Hoberena baserritarrek egiten dutena omen da, deus gehitu gabea.

■ **Nola hasi zinen belar hockeyan jokatzen?**

Donostiako Morlans ikastetxean negoeanean, belar hockey talde bat egiteko asmoa egokitu zen. Kirola asko gustatzen zitzaigun neska batzuek esan genuen hockeyan jokatuhiko genukeela, eta hala hasi nintzen, hamaika urte nituela.

■ **Hemen ez da ohiko kirola. Bidea luzea izan da?**

Orduan federazioak monitorea bidali zituen ikastetxetara eta talde batzuk atera ziren: Morlans edo Asunción ikastetxeak, adibidez. Morlans taldean urte batzuk aritu nintzen. Behin Realeko gazte taldean jokatzea eskaini zidaten. Konturatu nintzen aurrrera egiteko talde hobe batera joan behar nuela, eta Realera pasatu nintzen. Gazteekin jokatzen hasi nintzen. Espainiako txapelketetara joaten hasi ginen, duela urte bat erretiratu nintzen arte.

■ **Nola gogoratzen dituzu urte haiek?**

Oso politak izan ziren. Oso giro ona genuen. Bi-hiru egunetan batzen ginen entrenatzeko eta kirolari esker bidaiatzeko hasi ginen.

■ **Jokalari batek lor dezakeen gehientsuena lortu duzu: 1978tik joan den urtera arte Realeko jokalaria izan zara; 178 aldiz jokatu duzu Espainiako selekzioarekin, eta Baztelonako Joko Olimpikoetan urrezko domina irabazi zenuen harekin...**

Olinpiadetako dominan ez nuen inoiz pentsatu. Hasi nintzenean ez nuen uste selekziara iritsiko nintzenik ere. Behin zerbaitetan hasten zarenan, ongi badoakizu, bata bestearen

atzetik dator, kateaturik. Zortea izan nuen eta gero eta gorago iritsi nintzen. Bartzelonari Joko Olimpikoak hartzeko aukera eman zitzaionean, joatea zen helburua. Munduko hoberenekin entrenatzen ari zarel, dominan pentsatzen duzu, eta lehiaketan zaudenean, berriz, urrezkoa lor dezakezula.

■ **Gailurrera iristeko malda asko igo behar dira?**

Egiten ari zarena asko gustatu behar zaizu. Urte askotan egunerokoa hockeyaren inguruan kokatu dut. Gora iritsitakoan, lan asko egiten duzu eta ilusio handiarekin. Zortea ere behar duzu. Une egokian behar den tokian egon behar duzu.

■ **Zer utzi duzu bidean?**

Ikasketetan baino gehiago hockeyan jartzen nuen arreta. INEFen (Espainiako Kirol Institutu Nazionala) kirol ikasketak egin nituen erraztasun gehiago nituelako biak uzartzeko. Bestalde, belar hockeyaren giroan sartzen zara erabat, eta familiari eta lagunei denbora gutxiago eskaintzen diezu. Hautua egin behar duzu. Gauza asko utzi behar izan ditut, baina merezi zuen. Orduan asebeste ninduen eta ez naiz damu.

■ **Zer eman dio euskal kirolari Teresa Motosek?**

Joko Olimpikoetan domina bat irabazteak ezagutarazi du zertxobait gehiago kirol hau, eta Donostian eta Euskal Herrian Realeko hockey taldea ezaguna da. Ez da ustekabeen pasatzen. Azken hamar urteotan goian egon garen oso talde ona izan gara.

■ **Beste kirol batzuetan bezala, horretan ere gizonenak du lehentasuna. Diskriminaziorik jasan duzue?**

Bai, askotan. Onartu behar da lan asko kostatzen da maila gorenera iristea. Maila handi batean zaudenean beste begirune bat dizute, baina esfortzu askoz handiagoa egin behar duzu maiz gu baino txarrago den gizonen talde batek bezainbesteko arreta

Nafarroan erredatu nahian

Teresa Motosek 35 urte ditu eta joan den urtea arte Realarekin eta Espainiako selekzioarekin jokatu du. Egun Barañainen bizi da. Nafarroako Ospitaleko zuzendariarekin ez-kondua (berez Irurrikakoa da), hiru urteko alaba eta lau hilabetezko semea ditu. Mariano Izetaren iloba izanik, berak dioen moduan Baztango «lotu» omen dute beti, eta txikitatik hara joan izan da udak pasatzera. Aita erdalduna izanik, ikasten ari bada ere, oraindik bere euskara ez dela garbia dio. Ulertzen du eta amarenean dena euskaraz hitz egiten du. «Orain ematen diogun garrantzia ez zitzaion ematen orduan», azpimarratu du. Baina, familiarekin edo lagunekin egon, kirola egin eta euskara ikasteaz gain, hockeyak kezkatzen jarraitzen du.

Teresaren ustez, lehen gailurrerako, «asko utzi eta zortea behar da».

● MIKEL SAIZ


lortzeko. Tamalez, oraindik, arreta gehiago irabazteko doble lan egin behar duzu. ■ **Tenisean neskak hasi dira protestak egiten. Ez duzue pentsatu zuek ere bide bera jarraitzea?**

Gure kasuan kirol amateurra da eta diru



gara gazte mailan hirugarren sailkatu gara», 40 jokalariko taldea du, eta iritsitakoan beste nonbait selekzioarekin egon behar du. ■ **Lehiaketatik irakaskuntzarako zubia pasatu duzu. Handia izan da jauzia?**

Mallakaturia izan da. Bartzelonakoaren ondoren, 1992an, Iruñeko San Agustin ikastetxean hasi nintzen lanean, baina txapelkete-



Teresa Motos, San Agustin ikastetxeko gimnasioan
● MIKEL SAIZ

aldetik ez dago deus esaterik. Laguntza batzuk eman dizkigute baina ez gara kaltetuak atera. Lehenengo urteetan bai, baina behin ADOn sartu ginelarik (Kirol olinpikoak garatzeko sortutako elkarte) egoera hobetu zen. Munduko Txapelketan sei lehenengoen artean sailkatzen zara, urrezko domina Bartzelonako Olinpiadetan... Oso ongi hartu gintuzten, baina lan asko egin behar izan genuen eta oso gora iritsi hori lortzeko. Realean orain oso urte onak iragaten ari gara. Futbol talde batek hartu izanaren zortea duzu.

■ **Azken boladan kirolean auzi gogorrrak daude dopinarekin. Kirolean arrakasta lortzea kirolaria dopatzen ez harrapatzea da?**

Ongi azaldu beharko litzateke zer den dopatzea. Mugak ez daude argi. Bitamina batzuk hartzea dopatzea da?, edo EPO hartzea, edo anabolizanteak? Egin behar den lehen gauza da ikustea non dauden kirol ikuskizuna eta kirolariaren errendimendua hobetzearen eta haren osasunaren arteko mugak. Garrantzitsuena kirolariaren osasuna da, eta horri kalte egiten zaionean moztu egin behar da.

■ **Kirolariari gero eta gehiago eskatzen zaion gorpil zoro batean sartu gara, eta badirudi medikuek edo prestatzaile fisikoek kontrolatzen dutela kirolaria.**

Gerta daiteke. Asko entrenatzen ari zarenean beti zerbait hartzen duzu. Guri ere bitaminak ematen zizkiguten. Normala baino askoz handiagoa esfortzu bat egiten ari zara, eta zure gorpuzak ohikoa baino gehiago behar du.

■ **Lehiaketatik irakaskuntzarako zubia pasatu duzu. Handia izan da jauzia?**

Mallakaturia izan da. Bartzelonakoaren ondoren, 1992an, Iruñeko San Agustin ikastetxean hasi nintzen lanean, baina txapelkete-

tan jarraitzen nuen Realean, eta selekzioan. Heziketa fisikoa irakasten hastearrekin batera hockeya irakasten hasi nintzen. Entrenatzea polita da. Gehien gustatzen zaidana kirola praktikatzeko da, baina zirrargarria da zure neskek lehen partidua irabazten dutela ikustea, ikasten ari direla edo gol bakarra sartzen dituzela bizitzea.

■ **Erakutsiz ikasten da?**

Bai. Hiru urtetik hemezortzi urte arteko neskek inoiz ere ez zuten zurea ahanzten joan zara, baina adin ezberdinetako jendearekin harremanetan egotean ikasten duzu bizitzaren etapa bakoitza zer den ez atzentzen.

■ **Ama ere izan zara. Amatasunak aldatu zaitu?**

Orain lehentasuna haurrak dira. Itsaso eduki nuen, eta orain bost hilabete Loren jaio zen. Zure bizitza zure haurren baitan kokatzen da. Nolanahi ere, Itsaso izan ondoren lehiatzen jarraitu nuen. Atlantako Joko Olimpikoak Itsaso jaio eta gero prestatu nituen. Madrilerara joan zen nirekin bizitzera.

■ **Hogeita hamabost urte besterik ez duzu, eta omenaldi franko egin dizkizute. Nola hartzen dituzu?**

Kirolean murgilduta zaudenean sariak ohikoak dira. Eskertzen da eta polita da bizitzaren etapa bat bukatzen duzunean besteek aintzat hartzea zuk egindakoa, baina batzuetan gainezka egiten dituzte.

■ **Zer da zailagoa, Joko Olimpikoetan irabaztea edo zure haurrak zaintzea?**

Gauza ezberdinak dira. Haurrak zaintzen dituzte miresten dituzulako. Ez da neke, senak eskatzen ditu. Joko Olimpiko batzuk prestatzea lan gogorra da.

■ **Etorikizunak zer ekarriko ditu?**

Familiari lehentasuna ematea erabaki dut. Espainiako selekzioaren bigarren entrenatzaile izatea eskaini didate baina nahiago dut familiarekin egon.

■ **Eta Euskal Herriko selekzioa entrenatzea?**

Gustura egiten nuke.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Biktoriano Huizi gogoratzen

Aurten ehun urte betetzen dira Biktoriano Huizik bere gramatika argitara eman zuenetik, eta huraxe aitzaki hartuta, Akademiak omenaldi xaloa egin zion atzokoan Etxarrikoari; haizu bekit honetan omenaldiko ohiartzuna ozenagotzea Biktorianoz hitz bi plazaratuz.



JUSTO HUIZI ETA ANASTASIA González de Villazón senar-emaztearen seme bakarra zen Biktoriano 1860.eko irailaren 6an jaio eta 1938.eko irailaren 19an izen-kidea zuen Biktoriano Irurtzun iloba apezak lagundurik zendu zen Etxarri-Aranatzen. Apaiz izateko ikasketak Iruñeko San Migelgo apezgaitzian burutu zituen, hau da, hiru urteko humanitateak, bi urteko filosofia, eta sei urteko teologia, honen ostean, 1885. urte inguruan apezte zelarik. Behin apezte geroz, hamalau urtez izan genuen erretore eta beste zazpi urtez arizan zen apaiz-laguntzaile Nafarroako hainbat tokitan. Apez moduan burutu zituen lehenbiziko lanek Aezkoara eta Itzara eraman zuten, Abaurrepera eta Larunbera hain zuzen ere, halaz guztiz, ez zen luzaroei joko sorterritik hurbilera joanarazi zuten arte, eta 90.eko hamarkadarako Unanun eta Arakil-Uhartan izan genuen erretore. Burgostik 1899.eko bukaeran iritsitako gotzai berriak Altsasura eta Urdiainera igorri zuen apaiz-laguntzaile eta parroki-ekonomilari lanetan aritzeko. Sakanatik 1904.ean atera zen Iraizotzera erretore joateko, baina Ultzaman ere arras denbora laburra eman zuen, izan ere, Lesakara aldatu baitzuten apezlaguntzaile lanetan berriz ere aritzeko. Alabaina, eta apezpikute-giko agintariek bide zituen arazoengatik, 1923.eko otsailaren 23an Josulagunen ordenean sartu zen josulaguntzaile moduan Loiolako etxean, honekin bere bizitzaren lehenbiziko aroa itxiz. la hogeit urte eman zituen

Biktoriano Huizik Lagundian. Apaiza bazen ere, josulaguna izateko prestakuntza ikasketak burutu behar izan zituen; lehenbizi, eta lehenengo zinitzak egin aurretik, josulaguntzari bezalako hiru urte igaro zituen Loiolan; handik, Burgo La Merced ikastetxera joan zitzaizun 1909.eko ikasturtean erretorika ikasle moduan; hurrengo bi ikasturteetan, berriz, teologia dogmatikoa eta morala ikasi behar izan zuen Oñako ikastetxean, eta azkenik, josulaguna izateko faltatzen zitzaion hirugarren probanda 1912.ean egin zuen Loiolan. Orduz geroz, apaiz lanetan ihardun zuen Lagundiaren zenbait etxeetan: 1913.ean Loiolakoan, 1914.etik 1918.erako laurtekoan Bilboan, 1919.etik 1922.erako hirurtekoan berriz ere Loiolakoan, eta azkenik, 1923.etik 1924.era Durangokoan. 1925.erako jada ez da Biktoriano izena Lagundiaren katalogoetan agertzen. Azken urte hauetan gerizpetu zuen ordena uzteko izan zitzaizkeen arrazoiak ez dira ezagunak, alabaina gauza jakina da etxarriarra ari zailkeoa zela, koxkorreko pertsona, eta batekin eta besterekin muturka ibili izanaren ondorioa zatekeen. Edozein arrazoi delarik ere, Huizik Loiolako ordena largatu zuenean, urrutira jo zuen, ausaz ahantzibidea harturik, eta Kuba aldera joan zitzaizgun berriz ere apez soil moduan. Karibeko uharteetan, ordea, ez bide zuen denboraldi luzeegia eman, eta handik gutxira Etxarriara itzuli zen, non zendu arte sortetxean geratu zen.

Huizik *Manual de gramática bascongada dedicado a la excelentísima Diputación de Navarra y al Seminario Conciliar de Pamplona* izenburuko lana utzi zigun, Iruñean 1899.ean atera zena, eta berauk bere poltsikotik ordainduta. Liburukiari goiburua emateko bi hizkuntzatan egin sarrera guritsua datorkigu. Sarreraren ostean jarraian dakarren gramatika gaika banandurik dugu: alfabetoa, artikulak, izenak, deklinabidea, izenordeak, izenondoak eta aditza. Ahitzeko, benetan interesgarriak diren Aranatz aldeko hiztegi laburra eta hainbat esaldi nahiz elkarrizketa eskeini zizkigun, azken orrialdeetan agertzen diren dotrina kontuak, zenbait ipuin eta Aralarko San Migelen omenezko kantekin batera. Lan ezagun honetaz gainera, eta Urdiango parrokiaren zegoela, *Elizaguindeen zuzenguin kontuskua* izenburuko eman zuen argitara 1904.ean Iruñeko apezpikute-giaren aldizkarian. Honakoa Urdiango misioen erreseina dugu, laburra izanagatik ere, intereskoa dena, non bi orrialde eskasetan, 1903.eko bukaeraldean Orkin eta Erbiti aita erredentoristek Urdiainen eginko misioaldien aipua ekarri baitzigen. Apezpikute-giko *Boletín Oficial Eclesiástico* aldizkaria Uriz Labairu gotzaiaren aginteagan sortu zen 1862.eko maiatzaren 10ez geroz. Karrikan izan zen lehenbiziko 40 urteetan ez zen testurik euskaraz ageri, harik eta 1903.eko ekainaren 2an Arruitzen erretore zegoen Joxe Fermin Argiñarenak *Mayatececo illa Euskal-Errian* izenburuko laburra igorri zuen arte. Baraibartar huraxek ireki ildotik, beraz, etorri zen Huiziren lana, tamalez, ezagutzen dugun azkena ere izan zena.



etorri ahallean

Patziku Perurena

Eskarpiñak

ONGI FINAK DIRA Oinetakoak, oinutsik... hitzak, eta usuario haundikoak. Baina guk etxean hankatakok, hankutsik, hankaundi, hankazabal, hankoker, hankaluze... aditu eta erabili izan dugu, hanka biko piztitzaz ari garela ere. Genobeba Benaikoa zen, nik auzoan nonarahi hankutsik ezagutu nuen azkenekoa. Zenbat aldiz gure etxera, tapa tapa, hankutsean. Beti diosala beratsua izaten zuen: «Jainkok eun on, bazkari prepatu al tzute o?» bazkalarrea bazen; bazkal ondorera ezker, berriz: «Jaink. arrasalde on, berendu prep.?» Eta behin arratsalde erditik aurrera: «Jaink. inular on, apari prep.?» Eta hainbat aldiz aditu eta go-goan hartua, gurasoenera joaten naizenero, diosala berbera erabiltzen dut nik oraindik sarrean, erdibroman bezala, amona Genobeba imitatuz; baina, amaren damurako, hanketako zikinekin askotan. Baina, natorren bidera. Garai honetara ezker, Goizuetako «eskarpiñak» bezain xoragarri egiten zaizkit Leitzako «espartziñak», nahiz kanpotik etorriak izan biak. Espartziña, (edo kasik hedatuago den espartina) aragoiko «espartaña» hitzetik, noski. Goizuetako «eskarpiña» berriz, italerako scarpino hitzetik escarpin kastillanoan barrena geureganatua noizbait. Zenbati ez daukat aditua, inguruko herrietan nabilela: «itxen eskarpiñ pare bat o bi besteik ez, ta senidek txandaka yoten giñuzen herrira; aurrena bihiru senide goizeko mezara, gero beste bihiru meza nausira, beste bihiru pezpata, ta holexe moldatzen giñuzen, elkarri eskarpiñak txandatuz. Beharko! besteik ez huen izaten ta». Oi eskarpinak! zuen pauso arinen berri balekitez, tankeak hanketako dituztela dabilzan gazteok! Gure aitonen amonen hanketakorik preziatuena, eskarpiña, batez ere herrirako erabili ohi zuen bordariak, eta kaletarrak berak, jaiegun edo mezarako ba-

karririk askotan. Gero hanketako ugaldu zenean, beltzak edo urdinak asteleguneko feri, tratu, bidai eta abarretan; eta zuriak jai haunditako pantasizat. Begira, bestenaz, Angel Leozen koplari honi: Los mocicos de este pueblo no quieren llevar abarcas. Prefieren aunque se mojen simples alpargatas blancas. Axaleko itxura xuri politak deus-tako balio ez duelako leloa, euskaraz ere aski hedatua da koplari moduan: Zapatak xuri paperez euria bada baterez Nere eskarpinei, beste zenbait lekutan, «alpargatak» esaten die euskaraz ere. Beste jantzi izen askoren gisan, txerto arabiarrak du honek: «al-barga», pluralean, «al-bargat», baina erroa «abarka» hitzean, filologo askoren ustetan euskara hutsa ez bada ere, gutxienez erromatarren aurrekoa omen denekoa. Erro zahar hori salatzen luken beste deitura, «abarketa» genuke eskarpinei deitzeko Bizkaia osoan eta Gipuzkoako parte haundian erruz erabiltzen dena. Horratz zeinen adartzua den hitzen historia: abarketa, alpargata, eskarpiña, espartina, espartina... Guziek gauza bera dizute esanahi, baina, sustrai eta ibilera hagitz desberdinak jasotzen ditu bakoitzak. Beste gauza batek harritu izan nau beti. Erdi Aroko errege eta gerozko jaun askoren izen-goiti moduan maiz ageri den «Abarka» horrek. Orain mila urte pasatxoko gure Santxo Abarka dugu, horietako bat. Kijoteren sarreran hala dio Cervantesek: «salgo ahora, con todos mis años a cuestras, con una leyenda seca como un esparto». Eta guk euskaraz halatsu esaten dugu, konparazio batera, gehixko egindako txuleta edo xerra lehor gihartzuren batekin plateran katazka gabiltzala: «Eskarpin zola biño leorrea zeok!». Hire artikulua txar hau bezalatsu, esazu.

Ziria

• Motxorrosolo •

Elkarrizketarako gaitasuna

Bakarrarekin edozertarako prest. EAJK hamarkada oso bat igaro du ordekaritzarik gabe bi egun aski izan ditu interlokuzio lanetan hasteko. Orokorrean, inoiz baino gehiago hitz egiten ari dira. Haize berriak nonbait. Denek ez dute berdin maite solasa. Sarasate pasealekuko batzuk ere, mututasun horren alde agertu, edozer gauzatarako gai dira.

Mikel Sorauren  Historiagilea

«Independentziaren galeraren une gorena da Noaingo Guda»

Hainbat kultur erakundek 1521ean jazotako Noaingo Guda gogoratuko dute etzi Getzen. Mikel Sorauren historiagile nafarra han izanen da. Bere irudiko, Nafarroako independentziaren galeraren une gorena izan zen guda hura.

AZKAR ETA TENTUZ MINTZATzen da Mikel Sorauren bere herriko historia gogoratzean. Esan beharrekoak bukatu arte ez zuen deus hartu nahi izan.

■ **Etzi Noaingo Guda gogoratuko duzue Getzen. Zergatik?**

Nafarroaren historian erabakigarria izan zen gertaera historiko baten oroitzapena da. Historikoki, Nafarroan izan zen eta izan zitekeen euskal estatu zapuztuaren izaera da. Ekitaldiarekin gure herriko historiari buruz gogoeta egin nahi dugu, eta, era berean, guztion oroimean eragina izan dezan. Finean, euskaldunak nahi dugun nazioa diseinatzeko gai izan gaitezten.

■ **Zer gertatu zen 1521ean jazotako gudan?**

Independentziaren galeraren une gorena da. Nafarroako independentzia berreskuratu zen une batean, gaztelauen egoera kritiko bat aprobetxatuz, baina hauen erreakzioa oso handia izan zen. Nafarrak egoera zailean geunden eta guda erabakigarria izan zen. Nafarroak orduan 80.000-100.000 biztanle inguru zituen, eta ez zuen ahalmenik sekulako armada egiteko, baina Nafarroako biztanleriak armada askatzailearen alde egin zuen. Armada nafarra eta frantziarra zen. Indar handiena frantziarra izan arren, nafarrak erabat inplikatuak egon ziren.

■ **Jende asko hil zen?**

5.000 lagun inguru hil ziren. Garai hartarako guda odoltsua izan zen. Getzeko Mendin jazo zen, gudaren behatokia zen. Nafar-fran-

tses armada Subizako lepotik etorri zen, eta Elorz ibaia- ren bestaldetik hasi zen guda, Izagaondoa gainetik. Eskirotz, Barbatan, Noain eta Getzen gertatu zen.

■ **Gogoeta egin nahi duzuela esan duzu.**


Gure historiak oso bide berezia izan duela ohartarazi nahi ditugu nafarrak. Era berean, Nafarroako historiari buruz gogoeta egiteko arrazoia izan dadila nahi dugu. Han zapuztu zen era bortitzean gure askatasuna, eta arrazoi asko ditugu harro egoteko. Uste dugu gure historian elementu asko daudela erabateko aktualitatea dutenak: askatasunagatik borroka, kasu; Nafarroako gertakari historiko gehien ezaugarri da hori, gainera. Egun gutaz euskaldun moduan hitz egin baldin badezakegu, estatu bat izan genuelako da. Hark gure herriaren esistentzia bermatu zuen.

■ **Zein dira kolektibitate horren interesak?**

Babeserako edo erasorako dira. Estatu guztietan daude elementu erasotzaileak. Gure estatua, estatu feudal, aristokratiko eta hedakor baten moduan egituratu zitekeen, Aragoi bezala. Kanpotik Nafarroako Estatua ezabatu nahiak azaleratu zuen talde sozial zabalen eta herrikioen balorea, eta defendatu zuten estatua guztion interesen babesle moduan.

■ **Historiagile nafarrek Noaingo Gudari behar adinako garrantzia eta isla eman diote?**

Ezberdintasunak egin behar dira. Historiagile askok behar adina garrantzi



MIKEL SAIZ

«Ekitaldia Nafarroako historiari buruz gogoeta egiteko arrazoia izan dadila nahi dugu, gure askatasuna han zapuztu baitzen era bortitzean»

eman diote, eta planteamendu honi erantzun diote. Baina ezin dugu ahaztu dugun egitura: gurea ez den estatu batean gaudela, eta historiari buruz bere ikuspegia inposatzen duela. Espainiako Estatuak interesa du antzinatik Hispania izan garela esateko, eta Espania kanpotik ezarritako deitura geografiko bat besterik ez da. Nafarroa desegin bazen, nobleziak Gaztelan erakargarritasun gehiago aurkitu zuelako izan zen.

■ **Egun horretan San Pedroko jauregiaren aurrean pregoia irakurriko duzue.**

Bai, egun Kapitaniako Jauregia deitzen dutenean. XIV mendea arte Artzapezpi-kuarena zen, eta gero erregearen Jauregia izan zen. Han egon zen Nafarroako azken errege independentea, Juan de Labrit.

■ **Zein toki du Europako amaraunean Euskal Herriak?**

Ez dugu planteatzen estatu-nazio klasiko baten erakuntza, baizik eta nazioen Europa. Pentsatu beharko genuke etorkizunean European benetako nazio bilakatzea, baina hiritarren elkartasuna dugularik. Askoz irekiagoa eta kontraesanak gainditzeko hobe da gure planteamendua European egiten ari dena baino. Horren aurrean, beharrezkoa da sistema aldatzea, orain ez baitzaigu paperik ere eman nahi. Baina euskal arazoa deitzen dutena ezaguna da European eta erreferentzia oso garrantzitsua bilaka daiteke menperatuak dauden nazioentzat. Horrela eraiki daiteke Europa bat, ez genukeelako beldurrik izanen soberania uzteko, soberania horretan partaide eta sortzaile izanen ginatkeelako, eta gure identitatea errespetatuko litzatekeen bermea izanen genukeelako.

→ Irene Arrizurieta

soslaia

Mikel Sorauren historiagile iruindarra Euskal Herriko historiaren iker- tzaile sutsua da. Iruñeko Padre Moret Irubide Institutuko historia irakaslea da. Opukeko Unibertsitatean ikasi eta hainbat unibertsitatean ikerketak egin ahal izateko lekuren bat lortzen saiatu bazen ere, baztertua izan zen. «Euskal nazionalismoaren aldekoa nintzelako baztertu ninduten Opukeko Unibertsitatean, eta ustez ezkerrekoak zirenetan ere».

Laneko orduak ez ezik, aisialdiok ere hartzen dizkio historiak Sorauren. Etxean badu 2.000 liburu baino gehiagoko liburategia. Euskal Herriko historiaren ikuspegi orokor bat izan nahirik ikertzen du. Lan horretan bi gauzak nazkatzen omen dute gehien: egunak nahi duen guztia ikertzeko denbora ez eskaintzea eta nekeak hartzea.

Etziko berak eta beste elkarte kultural batzuk antolatutako ekitaldiak 10:00etan hasiko dira Nafarroako Erregearen jauregian. Handik Foruen monumentura joanen dira. 12:30etan Getzen ongietorria egingen dute, eta Mendin, Noaingo gudari- en oroitarrian, agurra eta ekitaldi nagusia egingo dira.



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Sozialistek iraultza behar dute

Hauteskundeak egin baino lehen, hauteskunde kanpainen eta hauteskundeen ondoren ere frogatu ahal izan dugu: Nafarroako sozialisten agintariek ez dute erremediorik. Egia erran, hori ez da berria, azken 20 urteotan sozialistena etengabeko iruzurra izan delako: Iruzur politikoa. Eta bertzea: Urralburuk-eta eginikoa. Azken hori duela bost urtekoa izanagatik, beldur naiz ez ote den oraindik bi arrazoiengatik baldintzatzen ari hemengo etorkizun politikoa: sozialistek ez dutelako garbitu beharrekoa garbitu, eta lurralde honetan eragin handia duten batzuek hori dena badakitelako.

Horri beste desgrazia bat gehitu behar zaio; alegia, lider bat ez dela egun batetik bertzera egiten, ez dela asmatzen. Eta, politikoen banaz bertzeko maila oso handia ez izanagatik, Sanzek ere politiko itxura ematen du oraingo idazkari nagusiaren ondoan.

Aipaturikoak ez du esperantzarako toki handirik uzten, UPNko-endako izan ezik. Egoera, ordea, aldatuko da; batez ere, bake giroa sendotuta, aitzakiak asmatzea ezinezkoa bihurtzen bada. Sozialistek, orduan, zentzuzko erabaki batzuk hartzera behartu beharko dituzte agintariek. Alderdia garbitu inoren gatibu ez izateko, barruan dituzten UPNkoak Bianako Printzea plazara bota, agintari duinak aukeratu eta erregionalistak Diputazioetik ateratzeko ahaleginak egiten hasi. Iraultza hori egiteko gai den inor balitz, idazkaritza nagusia mereziko luke. Hori egiteko asmorik ez duena UGTra itzul dadila, han ere argi daukatelako UPN dela nafarrok gobernatzeko alderdi hoberena.

gure aukerak

KONTZERTUAK

► Lizarra: **San Martin plazan Kizio eta Konorterik Gabe** taldeek joko dute gaur, 22:00etan. Bihar, berriz, gaztetxean El Corazon del Sapo eta MPD taldeak ariko dira, 23:00etan. Sarrerak 500 pezeta balio du.

► Aizoain: **Emma musika eskolaren** ikasturte bukaerako festa ospatuko da gaur Artsaian, 22:00etan. Bihar, berriz, Iruñeko Udalak lagundutako rock eta pop taldeen emanaldia izanen da ordu berrean.

► Iruñea: **El trono de Judas** taldeak joko du gaur Terminal tabernan, 21:30etan.

► Iruñea: **Javier Garayalde eta Ramon Garcia All Jazz Group-ek** jazz kontzertua eskainiko dute datorren asteazkenean, O' Connor's tabernan, 23:00etan.

► Iruñea: **Golden Apple Quartet** hirukotearen kontzertua izanen da bihar eta etzi Gayarre antzokian, 20:00etan. Sarrerak 2.000 pezeta balio du.

► Bera: **Viaje a 800 eta Mermaid** taldeek Puy tabernan joko dute etzi.

ERAKUSKETAK

► Elizondo: **'El agua como medio'** Gipuzkoako Bidasoako zazpi artisten 35 lan ikusteko aukera dago Arizkunenea Kultur Etxean, uztailaren 12a arte.

► Iruñea: **Planetarioan Juan Mª Sukilbideren** artelanak ikus daitezke, uztailaren 2a arte.

► Iruñea: **Graffiti erakusketa** ikus daiteke Gotorlekuko Ar-

men Aretoan, uztailaren 1a arte.

BERTSOLARIAK

► Iruñea: **Xabier Amurizaren** ikuskizun berezia da gaur, 18:00etan, Donibane auzoko Euskaltegiko plazan. Ondoren, erakusketa, fanfarrea, txalaparta emanaldia eta tailerra izanen dira, eta txistorra eta sagardo dastatzea ere.

BESTELAKOAK

► Zangoza: **Larratz dantza** taldeak **Hamaika dantzatzeko lurra** ikuskizuna eskainiko du bihar 22:30etan, Elizgibela kiroldegian.


► Berriozar **Helduentzako kontu kontari** ariko dira Virginia Alvira eta Baltziskueta 'Kontatzea duten istorioak' emankizunarekin, gaueko

22:30-etan, gaur, Eguzki Plazan.

► Berriozar: **Taldeko Triatloia** egingen dute bihar 14:30etan Zulo Alai elkartearen parean hasita. Hiru lagunek osatutako taldeak egingen dira, eta igerian, txirrinduan eta lasterka jardun beharko dute. Parte hartzaile bakotzak bere biziklera eraman behar du.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—Xa saberás que aquello que tiña o cacique non era cánc... cer...

Jauntzoak zuen eritasun hura minbizia ez zela jakin behar du s...